

Ttiki-ttaka

euskaldunon aldizkaria, 35. Zk.



Begiratu batean

Santa Lucía & San Gines 2026
11 Y 12 de mayo | maiatzak 11 eta 12

Santa Lucía

- 09:30k Rameria o Santa Lucía (Salida desde la Plaza de Lu Pas)
- 10:00 Min en la Ermita de Santa Lucía
- 10:45 Tradicional reparto de pan, chocolate y queso
- 12:30k Comienza el III Campeonato infantil de Frontón exprés de Santa Lucía (clasificación)
- 14:30k Comida en el frontón para las niñas en el campeonato
- 16:30 Seguirnos con las semifinales del campeonato
- 16:00k Juegos tradicionales de Santa Lucía en la Plaza de la Paz organizados por AMPA Escuela
- 19:00k Chocolatería en la Plaza de la Paz ofrecida por el AMPA de Barrio Ibañeta
- 19:30k Financé del Campeonato de frontón en el Frontón viejo

San Gines

- 11:00k Misa
- 11:30k Represen
- 15:00k Tradicional

09:30 Erromeria Santa Luciana (Intersección plaza)

10:00 Misa Santa Lucía ermitan

10:45 Ogi, txokolate eta gazta txokolatean

12:30k Misa ermitako Santa Lucía ermitan

14:30k Barrio fronton txokolatean

16:30k Txokolate txokolatean

18:00k Santa Lucía plaza 1000k on


19:00k Txokolate txokolatean

19:30k Frontón txokolatean



OINEZ

Bidean bat gara



Josemi Rodriguez



EUSKAL KULTUR ASTEBURUA
LANTZIEGON MAIATZAK 22

10:00-10:30 ESKOLAN ELKARTU
10:30etan KALEJIRA
11:30-13:00 JOLASAK ETA IPUIN KONTALARIA
13:00etan BAZKARIA
14:00 Dja ETA TAILERRAK
15:30 AGURRA

NEGOZIO ENERGETIKOAR EZI!
LPS HONI EZI!

19:30 etan: **TRIKI BERTSO KANTU POTEOA**

TTAKA Errioxako euskaldunen elkarte



Hizkuntzen txokoa



aunkibidea

HERRIZ HERRI

Editoriala	4
Bastida	6
Biasteri	8
Bilar	11
Lantziego	13
Lapuebla de Labarca	14
Navaridas	16
Oion	17
Samaniego	19
Viana	21
Zieko	23

ERREPORTAJEAK

Gauza tipien handitasuna	25
Auzoko elkarrizketa Oionen	29
Euskara sexista? Erabilera, gakoa	32
LPS honi EZ!	34

ELKARRIZKETAK

Javier Martinez Elvira	35
------------------------	----

DENBORAPASAK

Denborapasak	38
--------------	----

NON GOGOIA, HAN ZANGOIA

Non gogoia, han zangoia	41
-------------------------	----





Dezatela, Ezazue... Eta Eskubideak!

Ttiki-ttaka izena du elkarteak zein aldizkari honek, umearen pauso txikiak irudikatuz sortutako izena, baina aipatzekoa da azken 50 urteotan lortutakoa ikusita, umearen pausoak baino gehiago atleta baten 100 metroko pausoak eman direla. Ez Ttiki-ttakari esker, noski, baina pauso handiak. Gurasoen apustua handia izan zen ikastolen sorrera bideratzeko, eta haiek lan handia egiteaz gain, denbora eta diru asko eman dute orain artekora iristeko; era berean balioetsi behar da helduen euskalduntzean eginiko lana ere.

Hezkuntzan eta kulturaren ez ezik, izan dira aurrerapausoak: euskara teknikaria dugu; eta zenbait udalek, nolabait, kontuan izaten dute euskara, ekintza zehatzak antolatzeko orduan batik bat. Baina lortu den bideari jarraitzeko gehiago nahi genuke, gehiago egin behar baita aurrera egingo badugu. Batez ere, instituzioei dagokie hurrengo urratsa, eta orain arte ikusirik horien jardunak kezka sortzen du.

Aurkeztu berri omen du Eusko jaurlaritzak euskara plan berria, baina oraindik horren mamiaren berri ez dugunez, ezin dugu gehiegi baloratu. Erabilera omen du jomuga. Azkenaldian, halako planek erabilera dute xede; ondo bai, baina... Izan ere, beti antzeko diskurtsoa ikusi ohi dugu: “dakitenek egin dezatela”; “eska ezazue administrazioan euskaraz artatzea eta, eskaera badago, guk bideak jarriko ditugu”... Bai, sartuko dugu indarra, Korrikan, Euskaraldian, eta abarretan, baina euskarak agintarien aldetik erabiltzera animatzen duten neurriak baino ausartagoak behar ditu, **erabiltzera behartzen duten legeak**, hain zuzen.

Beharra da eragilerik handiena eta erabiltzera behartuko gaituzten arauak eta **legeak behar ditu euskarak**. Baina beldurra dago; izan ere, eskubideen gizarte honetan, funtzionarioen eskubideekin datozkigu orain zenbait. Zer eskubide eta eskubide ondo! Funtzionario izateko eskubiderik ez dago. Administrazioa herritarrari zerbitzu egokia emateko dago, eta zerbitzu egokia emateko betebeharren artean dago hizkuntzarena ere. Irakasle-titulurik ez duen inor ez da irakasle lanerako deialdietara aurkezten, eta titulu hori gabeko inork ez du esaten baztertua sentitzen denik. Euskaraz jakin gabe ere ezin da, bada, zerbitzu egokirik eskaini.

Eskubide faltsua, batetik eta, bestetik, inposatzearen gezurra. Berezko hizkuntza lurralde bati lotutako giza komunitate batek jatorriz duen hizkuntza bada, beste inondik ekarria ez dena, **euskaldunen berezko hizkuntza euskara da**. Ez da inondik inora, hortaz, inposatua. Beste kontu bat da gaztelania ere hemengo hizkuntza izatea, bertan mintzatzen delako.

Inposatutakorik izatekotan, gaztelania da. Euskal Herriko herri euskaldunetan, euskara besterik egiten ez zenean behartu zen gaztelania ikastera, eta ikasi zuten; izan ere, jakitea ez da inoiz txarra. Inposatu, gainera, gauza txarrak bakarrik inposatzen dira. Duela ez asko irakurri genion Joxerra Olanori, Ttiki-ttakaren sortzaileetako bati, ea imajinatzen dugun Kariben 15 eguneko egonaldia inposatu diotela dioenik. **Ez, gauza onak ez dira inposatzen, eta hizkuntza jakitea ona da**.

Badirudi, euskararen gaineko neurri politikoak hartzeko, politikariek herritarren onespina behar dutela, eta hori soilik euskarari gertatzen zaio. Gainerakoan,

Tfiki-ffaka 2026

esaterako genero berdintasunaren politikan, inori ez zaio bururatzeko herritarren iritziaren arabera neurriak hartzea. Edo nork eskatu zuen tabernetan ez erretzea? Edo nork autoa gidatzeko gerrikoa derrigorrezkoa izatea? Ez, ez zuen gehiengoak eskatu, baina **onerako dira neurriak eta agintariak lege bihurtu zituzten**. Emakumea ez dago gizonaren egoeran, eta legeak egin dituzte hala egon dadin. **Euskara egoera zaurgarrian dago, eta, beraz, hobetzeko lege eta neurri ausartak behar ditu.**

Borondateko printzipioa, desioa, izaera inklusiboa, erdaldunen eskubideak eta

antzeko hitzak utzi, eta erdaldunari euskaraz jakitea gero eta beharrezkoago duela pentsaraziko dion neurri politikoak behar ditu euskarak. Ez da nahikoa, beraz, Administrazioaren helburu nagusi izatea ematen dituen zerbitzuak euskaldunok jaso ahal izatea, euskalduntzearen alorrean sortzen denari erantzutea eta hezkuntza arautuan guztiek gutxieneko ezagutza izatea. Horiek lortzeko ere, horiek baino **harago doazen helburuak behar ditu euskara normalizatzea xede duen hizkuntza politikak, eta lortzeko lege eta neurri ausartak eta baliabidez ondo hornituak.**



bastida.....

Bastida Erromerian! Bisitari Liluratu Baten Kronika



A mets egin al duzue inoiz leku txiki batean galtzeaz, non tradizioa, debozioa eta ardo ona dantza eder batean bat egiten duten? Bada, zatozte nirekin Bastidara, Arabako herri xarmagarri batera. Maiatzaren 11n eta 12an ospatu diren **Santa Luzia** eta **San Ginés** erromerietan parte hartzeko aukera izan dut, eta esan behar dizuet esperientzia ahaztezina izan dela!

Astlehena: Santa Luzia, bedeinkapenen eta txokolatearen artean

Goiza Santa Luziaren ermitarako erromesaldiarekin hasi zen, Ebro ibaiaren inguruan, Briñas aldera. Bidean, apaizak hainbat geldialdi egin zituen soroak bedeinkatzeko; horrela, herriak bere erro nekazariak gogoratu eta omentzen ditu.

Ermitara iritsita, meza ospatu zen, eta haren oihartzuna mahastietan barrena zabaldu zen. Ondoren, herritarrek hamaiketako eder batez gozatu zuten. Udalak hurrei hamaiketako berezia eskaini zien: ogi-boloa, txokolate-tableta, laranja eta gaztatxoa.

Arratsaldean, herriko kaleak bizitzaz bete ziren. **herriko kirol tradizionalak** izan ziren protagonista; gazte eta hurrek euren indarra eta abilezia erakusteko aukera paregabea izan zuten. Bastidako elkarte batek —urtero elkarte desberdin batek hartzen tu ardura— **txokolate-jana bero eta gozoa** banatu zuen parte-hartzaile eta ikusleentzat. Gurasoak haurrak eta aiton-amonak elkarrekin bildu ziren, irribarre zabalez betetako giroan, belaunaldien arteko festa bihurtuz arratsaldea.

Asteartea: San Ginés, laguntasunaren eta ardoaren jai

Asteartean, jaiak San Ginés parkera egin zuen jauzi, Toloño mendiaren magalean dagoen paraje zoragarriara. Goizeko hamarretatik aurrera, herritarrek erromerian bertara iristen hasi ziren, familia eta lagun artean.

Eguneko egitarauan meza izan zen, eta aurreko egunean bezala, udalak umeentzako hamaiketako prestatu zuen. Bazkariak zuhaitzen itzalpean, mahai zapi zuriaren inguruan eta ardo kopa artean ospatu

Tfiki-ffaka 2026

ziren. Bertaratutako askok, gainera, aurten berritu duten tabernara gerturatu ziren giroaz eta trago on batez gozatzeraz.

Arratsaldean, udalak umeentzako merienda banatu zuen, eta txaranga batek jaia girotu zuen. ... Eta bai, uste bazenuten bazkariarekin amaitzen zela San Ginés eguna, prestatu zuen burua, bidaiariok: oraindik falta zen eguneko unerik zirraragarriena —eta bustiena—!

Bazkalostean, helduak karta-jokoetan aritzen dira; batzuk siesta ederra hartzen dute oihalaren azpian, eta beste batzuk solasaldi beroetan murgiltzen dira ardo-kopa eskuan. Bitartean, hurrek —eta ez hain hurrek— jolas berezi bati ekiten diote: **ardo-gerrari**. Bai, bai, ondo irakurri duzue.

Egun horretan, ur-pistolak atzean uzten dira, eta beren lekua hartzen dute... **ardo-pistolak!** Bota zaharrak, plastikozko pistolak eta baita botilatxo xumeenak ere arma bihurtzen dira: haurrak korrika, garrasika eta ardoz zipriztinduta ageri dira, beste behin ere adieraziz festak ez duela adinik ez eta mugarik.

Eta goia jotzen da arratsaldeko bostetan: **udalak 1.000 litro ardoz betetako upel erraldoia irekitzen du!** Bai, mila litro, eta dena haur eta gaztetxoek beren botilak bete ditzaten. Egia esan, han zebiltzan hainbat heldu ere, umetasunera itzuli nahian, botila bat aldean eta irribarre xelebrea aurpegian. Izan ere, nortzuk gara gu ardo-borrokaren aurrean serio mantentzeko?

Adinekoek zein gazteek dantzan eta algaran amaitu zuten eguna. Arratsaldea aurrera doan heinean, kotxe-karabana alai batekin jaitsi ginen herriko plazara, non jaiaren itxiera ospatzen den: denok elkarrekin dantzan, irribarrez eta nekea alde batera utzita, azken dantza baten indarrez agur esaten diogu egunari.



Bisitari baten gogoetak

Erromeria hauek ez dira soilik ospakizun erlijiosoak. Bastidako nortasunaren erakusgarri bizia dira. Sinesmenek, ohiturek, musikak eta gastronomiak giro berezi eta beroa sortzen dute, eta bertako zein kanpokoak familia handi baten parte sentitzea eragiten dute.

Bada, betarik izanez gero, ez galdu aukera maiatzean Bastidara hurbiltzeko. Prestatu oinetako erosoak jantzeko, kantatzeko, barre egiteko eta, jakina, eskualdeko ardo on batekin topa egiteko. Izan ere, herrian esaten duten bezala: "**Bastidan, erromeria bakoitza bizitzaren ospakizun bat da**".

bastida@ikastola.eus
www.bastidaikastola.eus



Inklusiboa, euskalduna, eleanitza, gertutasuna,
inplikazioa, konprometitua eta lankidetzaz

biasteri.....

Matilda



Zaharrak berri? Ez horixe!



Matilda urtxintxa bat da; neuk jarri nion izena. Litekeena *El Collao* pasealekuan ibiltzen diren lagunek bestela deitzea; Matilda zen niretzat. Atsegin ditudan animaliei izena ipini ohi diet. Gerora begiratu nuen izenak zer esan nahi zuen Interneten: *guduan indartsu, gerlari kementsua*. Orduantxe jakin nuen ederki asko asmatu nuela Matilda izena jarritakoan.

Eguneroko ibilbidean, sarritan egiten nuen topo harekin. Poltsikotik mugikorra atera, eta bideo laburrak egiten nizkion begi bistatik aldendu arte; mugimendu azkar eta bizi batez galdu egiten zen pinu garaietan zehar. Hegaztia

zirudien, alajaina! 17 bat bideo ditut ondo gordeta.

Nik dakidala hiru urtez egon da pasealekuan jostari, ibiltarion gozagarri.

Udaberria hastear zela, ordea, ez nuen berriro ikusi. Udaberrian maitasun kontuetan ibiltzen omen dira urtxintxak, eta horixe pentsatu nahi dut; senar bila joango zen, nonbait, eta, agian, familia osatua etorriko da berriro udazkenean. Argazkiotan (bideoetatik ateratakoak) Matilda azaltzen da emandako jana (intxaur goxoa) ahoan duela. **Ikusi arte, Matilda!**



Harresian

Ttiki-ttaka aldizkariaren 33. alean, Biasterin sortutako elkarte baten berri eman genizuen: **Harresian** elkarte. Historia eta arkeologia zuten ardatz, eta lehenengo helburuaz ere mintzo ziren ale hartan: Biasteriko gazteluaren aztarnak berreskuratu, ikertu eta dibulgatu. Esan eta egin.


Iragan urtarrilaren 17an, 12:00etan Biasteriko *Garzetas* etxean eman zuten hitzaldia elkarteko kide batzuek. Besteak beste, oso berri ona eman ziguten: Eusko Jaurlaritzak **250.000** euroko dirulaguntza eman zion Biasteriko udalari honek kudeatu zezan. Udala berehala jarri zen harremanetan elkartekideekin. Delako dirulaguntza 3 urtetan zehar lan egiteko da, eta aurkitzen dutenaren arabera, diru gehiago ematearen alde agertu ziren Eusko Jaurlaritzako arduradunak.

Elkartearen sortzailea den **Antonio Cadarso** kideari galdetu genion berririk ote den proiektuaz. Badirudi momentuz ez dagoela berri handirik. Joan den astean (maitzaren 4an) Biasteriko udala hasi omen zen kontratazio kontuak bideratzen, baina oraindik ez da berririk izan, alegia, ez zaie kontraturik iritsi. Gauzak horrela, lanak aurreratzea erabaki dute kideok. Lehenbizi, sasitza kendu, baimenak lortu, topografia egin eta tarteak neurtu zundaketa lanak egiteko.

Ttiki-ttaka 2026

Kementsu ari dira ilusioz beterik. Elkarteak bazkideak behar ditu, eta atek zabalik daude gerturatu nahi duen ororentzat. **Animatu eta egin zaitezte bazkide!**

Ondoko argazkian gazteluaren balizko kokapena, *La Bateria* deritzan gunean, *El Collao* pasealekuaren iparraldean; hondeaketa-lanak bertan hasiko dira.



Harresian elkarteko kideak

Antonio Cadarso (elkartearen sortzailea, presidentea eta 3D diseinatzailea).

Gadea Coca (idazkaria, diruzaina eta giza-baliabideen arduraduna).

Pablo Cuesta (arkitektoa eta ikertzailea).


Rebeca Marina (arkeologoa eta historialaria).

Ander Díez (arkitektoa eta ikertzailea).

Javier Niso (arkeologoa eta IRTEBIDE S.Cren sortzailea).

Miguel Loza (arkeologoa eta IRTEBIDE S.Cren sortzailea).

José Luis Solaun (arkeologoa. EHU).



Antonio Cadarso

50 urte jada



Maiatza etortzeaz bat, **Gaitaren Eguna** izaten da Biasterin. 9an eta 10ean izan zen ospakizunaren **50. urteurrena**. Dagoeneko 50 urte, aizue! Urte hauetan guztietan zenbat gaitari eta danbolin-jotzaile etorri ote dira gurera? Ezin zenbatu segurutik.


Jai polita bezain zaratatsua, izan ere, etorritako gaitari saldoa jotzen hasten denean soinu bizia sartzten da barruraino, eta, askotan, alferrikakoa da norbaitekin solas egitea. Dantzaleku erraldoi batean egotea bezalakoa da, bai horixe!

Ezin uka, ordea, zale andana etortzen dela Biasterira gaitaz gozatzera, eta kaleak lagunenez beterik agertzen zaizkigu; herriko festa nagusiak direla ematen du. Euskal Herriko toki askotatik etortzen dira gaita-jotzaileak, baita estatuko beste zokoetatik ere.

Larunbat arratsaldean hasten dira gaiteroak herrira hurbiltzen, eta berehala hasten dira jotzen bazter guztietan. Igande goiza ere ederra da. Etorritako talde guztien aurkezpena egiten da plazako berariazko eszenatokian. Unerik hunkigarriena omenaldiarena da. Urtero gaitari edota danbolin jole bati egiten zaio. Aurten berezia izan da, izan ere, bertako bi anaiak izan dira omenduak: **Rodolfo** eta **Victor de Marcos Uzkiano** (Los dos “Vitines”). Victor iragan abuztuan utzi gintuen zoritxarrez, baina bertakoon gogoan izango dira betirako Biasteriko kaleak alaitzen. Bejondeiela! Gaitaren Egunak beste 50 urte beteko ahal ditu!



Amiantoa



Azken hilabeteotan kontu bitxiak ikusi ditugu *El Collao* pasealekuan: ezohiko beharginak hara eta hona. Batzuek sekulako zuloa egiten bazter batean; beste batzuek Samaniegoren kioskoaren parean beste bi zulo. Zer ote?

Aipatu dugun zulo izugarri handi horretan 66 metroko garabia jarri dute *Victor Tapia* eskolako teiltua konpontzeko, izan ere, amiantozkoa da, eta bertako udala orain 3 urte hasi zen tramiteak egiten obretan hasteko. Gutxi barru, umerik ez denean hasiko dira obrak. Eusko Jurlaritzaren Hezkuntza Sailak 1.121.647,46 euroko dirulaguntza eman du (% 100).

Beste bi zuloak, ordea, **bi astigar handi** landatzeko ziren. Dagoeneko berde-berde daude **Félix María de Samaniego** alegiariaren ondoan. 😊

bilar

Estraperloaren Festak Bost Urte Jada!



Bernedo eta Bilar herrikook bost urte daramatzagu bertako estraperlistei omenaldiak egiten. Estraperlistak ezkutuko salerosketan ibiltzen ziren gure mendiaren alde banatan. Bilarretik ardoa, olio eta zereala garraitzen zituzten Bernedoraino mendian zehar. Bernedotik, berriz, mandoak patatez zamaturik etortzen ziren.

Garai gogorak ziren: lagun asko goseak jota; haien sabeletan negua baizik ez zen.

Garai hartako estraperlistarik ez da egun, baina gure festa kuttunaren lehenbiziko bi urtetan Bernedo eta Bilarreko estraperlistei gure esker ona emateko beta izan genuen egindako lan nekeza eta gogorarengatik.

Bestalde, bi herrien elkartasunak ezusteko ikaragarri ederrak sortu ditu: bi herriotako dantza taldeek, kasurako, harreman politak egin dituzte, eta zenbaitetan elkarrekin dantzatu dira; emakumeen artean sekulako harremanak sortu dira, eta izaten diren ekitaldietara gonbidatzen dituzte elkar; enpresaren batean interesaturik azaldu dira bi herriotako pertsonei lana eskaintzeko. Giza-harremanak izugarri sendotu dira, alajaina!.

Batzuetan galdetzen digute zer dela eta festaren arrakasta. Erantzuna argia da: ez dugu inbertsio berezirik egin, gure sustraietara bueltatu gara naturan murgildurik, mendia zeharkatu dugu gure arbasoek egiten zuten antzera, bidezidor horietan zehar ibili gara, orduko pasadizoak entzun...

Herri-bazkaria egindakoan, **Genevillako** baba-jana, edota Bernedoko patatak Bilarreko ardoa lagun. Ez da ezinbestekoa ikuskizun berezirik egitea, ez eta eserita egoteko ikuskizunik antolatu ondo pasatzeko. Inprobisatutako pilota partidatxoetan jokatu, kartetan aritu, geuk egindako herri kiroletan parte hartu edota sokasaltoan jardun; horixe bai dibertigarria!

Gure festak aiton-amonak, gurasoak eta bilobak batzen ditu, eta guztiok patxadaz eta alai egoten gara. Diskurtsorik gabeko festa da gurea; gure mahaian ez da izenik agertzen, ez dago erreserbarik; AA konturik ez da gurean; dena da benetakoa: platerak eta edalontziak beirazkoak dira eta mahai-tresnak metalezkoak. Eta, zertaz hitz egiten da gure festan? Bada, gari-landez eta mahastiez; mahatsaren prezioaz; patatak ateratzeko zailtasunez; ehizaz; mendiaz; herri txikiek aurrera egiteko dituzten zailtasunez; seme-alabez... *Trump* malapartatuaz... Bitartean, haurrak frontoi ondoko lur-meta batean jolasten dira pozik.

Bernedo eta Bilar herriek goxo begiratzen diote elkarri, Montxo Armendarizen filmean **Tasiok** eta **Paulinak** egiten zuten bezala **Viloriako** frontoian dantzatu bitartean.

Gora Bernedo, Gora Bilar eta larga vida al mundo rural!!!

Ttiki-ttaka 2026



Félix García, azken estraperlista (1931-2024)





Hainbat urte pasatu dira **EKA** azkenengoz Lantziegon ospatu zenetik. Eskola eta herri txikia izanik, esfortzu handia suposatu digun asteburua bada ere, ilusio handiz hartu dugun erronka da hau. Gainera, bi ikasturtez eskolako eraikin zaharraren obrak bukatu dira. Beraz, estreinaldi ederra izan da eskualdeko ikastetxeei ongietorria egiteko.

Arabako Errioxako eta Vianako umeak festa giroan elkartzen dituen eta euskara oinarri duen festa da EKA. Urtero ospatzen den jai honen garrantzia azpimarratu nahi dugu, euskara erdigunean izanik eskualdeko ikastetxeak batzen gaituelako.

Gizartea abiadura handian aldatzen ari den garai honetan gure hizkuntzan ere nabaria da eragina. Bereziki garrantzitsua iruditzen zaigu beraz, EKAREN bitartez, euskarari modu jolasgarrian eta dibertigarrian bultzada emateko aukera dugulako.

Orain ikasle diren ume hauek helduak direnean, gure hizkuntzarekiko atxikimendua era positiboan gogoratuko duten esperientzia dela uste dugu. Izan ere, horrelako esperientziak baitira helduak garenean gogoratzen ditugun momentuak.

Aurten **maiatzaren 22an** ospatu zen EKA. Egunean zehar hainbat jarduera eta ekitaldi egon ziren ikasleentzat: harrera eta kalejira, tailerrak eta jolasak, ipuin kontalaria, disko-jartzailea... hau guztia **Ttiki-ttaka** elkartearen laguntzari esker antolatu dugu.

Eguna borobiltzeko, ilunabarrean gazte zein helduentzako bertso triki poteoa izan zen 19:30etik aurrera Lantziegoko kaleetan barrena.



Lantziego Ikastola




ESKOLA PUBLIKOA

Eskola txikiak bizirik, euskara susfufuz

Lapuebla de Labarca.....

“La Casona” Aurrera Doa



Lapuebla de Labarcako “**La Casona**” etxearen proiektua azkenean errealitate bihurtzeko bidean doa.

Eraikinari izaera eta funtzionamendu propioa emateko urratsak ematen ari dira; duela hainbat urte sortu eta hasi zena helmugara heltzen ari da.

Bertan **Gizarte-etxea** egongo da, eta horrekin batera gure herrian antolatzen diren ekintza edo proiektuak egiteko gune-integrala izango da, herriko bizikidetzak hobetzeko asmoz.

Obrak Aldundi eta Jaurlaritzaren laguntzen bidez egin dira, eta esan behar da itxura batean dotore gelditu dela.

Bukatzeko, erronkarik zailena gelditzen da: ekintzak antolatu, etxe honi bitzita eta izaera propioa eman eta horretarako baliabideak jarri. Ez da erronka makala izango.

Ea berandu baino lehen ikusten ditugun.





Bastidako **Iratxe** animatzailearen eskutik aurten eskualdeko zenbait herritan, eta Lapueblan ere dantza mota hau lantzeko tailerra egon da. Bertan Lapueblako emakume talde ederra aritu da jo eta ke gorputza eragiten.

Dantza mota honen ezaugarri nagusia da bertako partaideak lerroan jartzen direla; horrela edozein adin eta gaitasun fisiko duen jende ezberdina elkartu daiteke musika jarraitzeko.

Hasiera batean dantza mota hau Country musikarekin lotuta zegoen, baina gaur egun beste musika askorekin ere egin daiteke.

Mugitzeko aukera ona edozeinentzat!



Navaridas herriak giro apartaz ospatu zuen aurten **Arabako Errioxako Dantzari Eguna**, eskualdeko kulturaren eta auzolanaren erakusgarri bihurtuz. Goiz goizetik, kaleak musikaz, giro onez eta dantzariz bete ziren, nahiz eta eguraldiak ez zuen asko lagundu.



Arabako Errioxako herri ezberdinetatik (Zieko, Laguardia, Samaniego, Oion...) iritsitako taldeek herriko frontoian euren dantza propioak egin zituzten ikusleen arreta bereganatuz. Herri osoan zehar egin behar zituzten dantzen erakustaldi ezberdinak, baina eguraldiak herriko frontoian egin behar izatera behartu zuen. Hala ere, bertaratutakoek ilusioz eta poz handiz hartu zuten dantzariak eskainitako ikuskizuna.

Aipatzekoa da, Navaridasko bizilagunen inplikazioa dena ongi atera zedin, eta herria egunerako prest egon zedin. Horrela, herri ezberdinetako dantzariak beso zabalik hartu zituzten. Egun dezentez, herriko auzotar askok denbora eta ahalegin izugarria eskaini zuten jaia prestatzen laguntzen. Batzuek kaleak eta plazak edertu zituzten apaingarri, lore eta euskal ikurrez; beste batzuek, berriz, Txosna eta txanda ezberdinak antolatzen eta herri-bazkarirako mahaiak eta prestatzen jardun zuten. Herriko elkarteek eta boluntarioek ere lan handia egin zuten bisitariei harrera beroa eskaintzeko.

Adin guztietako herritarrek parte hartu zuten prestaketetan (muntaketa, antolakuntza, koordinazio-lanak, txosna...). Herrian nabari zen elkarlan giroak erakutsi zuen Dantzari Eguna ez dela soilik ikuskizun kulturala, komunitatea sendotzeko eta belaunaldi desberdinak elkartzeko aukera ere badela.

Arratsaldean zein gauean, musika izan zen protagonista, eta jaia goizeko ordu txikitan amaitu zen. Navaridasko biztanleek oso positibotzat jo dute aurtengo edizioa; parte-hartze handia eta herritarren konpromisoa azpimarratu zuten, nahiz eta eguraldi kaskarra izan. Navaridasek berriro ere erakutsi du herri txikien auzolanaren garrantzia ezinbestekoa dela horrelako egun handiak aurrera atera ahal izateko.

Oion.....

Barruraino Sartzen Denean



Bigarren poesia-emanaldia zen ikasturte honetan Arabako Errioxan. Lehenbizikoa Samaniegon izan genuen, **Mikel Etxabururen** poemetan oinarritutako irakurketa musikatua. Ederra izan zen Saturrarango emakumeen kartzelako pasadizoekin osatutako poemaren emanaldi hura. Gustura atera zen jendea ekitalditik, eta ez ginen gutxi izan, 40 inguru.

Hortaz, kopuru horixe genuen helburu: ea 30en bat lagun biltzen ginen Oionen apirilaren 17an antolatutako poesia irakurketan. Eta, hara non, ia hirukoiztu egin zen gure pronostikoa. Egia esan, 30 edo gutxiago izan bagina ere, gustura geratuko ginatkeen, emanaldia zeharo polita izan baitzen, baina ezin da ukatu 75-80 lagun elkartu izanak are gehiago poztu gintuela. Bitxia, halaber, ikusleen jatorria, inguruko herrietakoez gain, bertan azpeitiarrak, tolosarrak, elgoibartarrak, hernaniarrak izan baitziren; pentsa, Iparraldetik ere etorri zen hango irrati bateko langile bat emanaldia grabatzera.

Mikel Alberdi Irizar azpeitiarrak Gorrebuston ematen du urtearen erdia, eta 2025eko irailean argitaratu zuen liburuko zenbait poema Arabako Errioxako herri horretan idatziak dira. Bai, horixe zen emanaldiaren funtsa: Mikel Alberdiren *Isildu Arte* liburuko olerkien irakurraldia. Irakurleak, Mikelez gain, **Jose Luis Otamendi** eta **Iñigo Aranbarri**. Otamendi poema idazlerik ezagunenetakoa da gaur egun Euskal Herrian; Aranbarrik, berriz, eleberriak, entseguak, poesiak... denetariko liburuak argitaratu ditu eta, noski, igandero Berrian irakurri ahal izaten dugu haren aletxoak. Poesiari laguntzen bi musikari: **Iker Zangroniz**, eskualdeko ikastoletan euskaldundutako saxo-jotzailea; eta, **Aitor Huergo**, gitarra-jotzailea, Mikel Alberdirekin batera *Mainlander* musika-taldean aritua eta egun bakarka edo **Aitor Huergo eta Lagunak** formatuan aritzen dena.

Zangronizek eman zion hasiera eta amaiera ekitaldiari, eta Huergok bere kantak jo zituen poesien artean, baina poemak irakurri bitartean ere dotore lagundu zien irakurleei. Irakurle arruntarentzat olerkia ez da erraza, baina nola aldatzen den poesia irakurtzen dakienak egiten duenean. Poesiak barruraino iritsi zitzaizkigun entzuleoi. Hunkigarria izan zen! Ikusle-entzuleen

Tfiki-ffaka 2026

begietan malkoak ageri ziren zenbaitetan, irribarreak ederturiko aurpegiak hurrena, amorrua ere bai eta amaieran... amaieran, munduko bidegabekeria guztien aurrean aldarrikapenean jarraitzeko indarra.



Isildu Aurretik liburuan, idazleak esparru asko landu ditu, eta horietako guztietako zertzeladak izan genituen emanaldia zehar. Bereziki bihotz-ukigarriak izan ziren Mikelek idatzitako zenbait *requiem*, halaxe irakurri baitzituzten idazlearen amari, lehengusinari eta Iñigo Segurola idazleari dedikatua, hunkituta alegia; ez zen gutxiago izan idazleak trintxera batean ezagututako gazteari dedikatua. Umorea ere izan genuen, ordea, esaterako, hiltzea ere ahaztu zaien euskal soziedadeetako txikitero amorratuei eskainitakoaren bidez. Idazleak Arabako Errioxan aurkitu duena ere sumatu genuen zenbaitetan: “Goizaren urdin argia Errioxan / haize arina olibondoetan / nahikoa dut bizitzeko / hemen jarraitzeko...”. Horrez gain, aldarrikapen asko, sutsuak gainera: gerren aurka, emakumearen berdintasunaren alde, bizikidetzaren alde, maitasunaren alde, askatasunaren alde, injustizia guztien kontra eta, jakina, euskararen alde.

Euskara, euskaraz idatzi baitzituen poemak Mikelek eta euskaratik bizi baitu mundua. Euskarak ekarri du honaino, gizateriarena den aberastasun linguistikoaren parte den hizkuntza honek. Idazleak pasioz eta maitasunez aldarrikatzen du euskara, gutxitua delako eta mantentzeko hizkuntz politika ausart eta zehatzak behar dituelako. Izan ere, diktaduraren gauean bortxatu izan zen hizkuntza, eta, oraindik ere, zenbait epailek eta politikariek baztertu nahi dute gure euskara.



samaniego.....

Samaniegon Atez-atekoa eta Igerileku Berriak

Iaz bezala, aurten ere kezkatuta dabilta mahastizainak udaberriko etengabeko eurite eta hezetasunagatik. Alde batetik, uztan ekar diezaieketen gaitzen beldur daude; izan ere, hezetasunarekin errazago zabaltzen dira gaixotasunak. Eta, bestetik, izurritea saihesteko tratamendu alferrikakoen diru xahutzeaz dira kexu.

Bien bitartean, herriko haur eta gazteak igerileku berriak erabiltzen hasteko irrikan daude. Negu osoan futbol-zelai eta pilotalekuaren artean kokatuta dagoen ingurunean lokatza eta ur zikinak ikusi ondoren, belarra erein zuten eta hazi delako berdeguneak ageri dira orain. Ura eta eguraldia garbi egotea baino ez zaigu falta uda giro betean sartzeko.



Tfiki-ffaka 2026

Egiazko beste aldaketa gertatu da herrian. Auzo-konpostarena 2017. urtean hasi bazen ere, helburuetara heldu ezinean, Kuadrillaren ekimena den **Lurretik lurrera** kanpainaren pean, hondakin organikoen etxez etxeko biltzeta ezarri da 2026ko apirilaren 13az geroztik. Samaniegoren aurretik, Kripan, Zieko eta Lantziegon dago sistema bera. Eta bigarren txanda honetan, Samaniegorekin batera, Moreda Araba eta lekora herriak daude.

Kudeaketa-eredu berria nahitaezkoa da, ez borondatezkoa. Arabako Errioxako Kuadrillan udal hondakinak biltzeko eta tratatzeko zerbitzuaren erabilera arautzen dituen eskualdeko ordenantzaren arabera (BOTH 111 zk.). Eta, aldaketa guztiak bezala, eta muga berriak onartzeko orduan dauden zailtasunengatik, zaborren jasotzeko arau berriak ez zaizkie oso erosoak suertatu Samaniegoko herritarrei. Azalpenen gabeziak, edukiontzia itxita egoteak, txartelaren funtzionamenduari gorabeherak eta abarrek asaldatu dituzte batzuk. Ez dakigu lotuta egongo den ala ez, baina Samaniegoko herritarrak **Puntu Berdearen** kamioian, adibidez, Arabako

Errioxako biztanleko erabilpen txikiena egiten dutenak izan dira urte askotan.

Kuadrillan ez daude kezkatuta, egokitzapen garaia delako. Alde batetik sistema berria ezarri den aurreko herrietan gertatutakoaren errepikapena gertatzen ari delako. Hasieran kexak, eragozpenak eta bestelako edukiontzien okerreko erabilpena. Denborarekin, ordea, sistemaren alde onak nabarmentzeko itxaropenean daude.

Gogoratu beharra dago konposta egitearena ez dela moda berria: aurreko belaunaldien ohiko praktika zen garaian egiten zen zerbait da. Hondakin organikoak eskualdean bertan kudeatzen dira, eta bertan erabiltzeko aukera dago.

Gardelegirainoko garraioa nabarmen gutxitzen da, bai kosteak eta izurketak ere bai.

Azkenik, ez zaigu ahaztu behar Europatik eta estatutik datozen araudiek gero eta helburu zorrotzagoak ezartzen dituztela hondakin birziklapenean. Horien artean dago hondakin % 55 bereizi eta birziklatzea lortzea. Ea laster lortzen dugun!



viana.....

Bidean Bat Gara: Viana eta Iruñerria Eskutik Helduta



Arabako Errioxa eta Viana muga administratibo batek banatuta egon arren, euskararen aldeko auzolanak eta amets partekatutak batzen gaitu. **Araba Euskaraz** eta **Nafarroa Oinez** jaien prestaketek erakusten dute komunitatearen indarrari esker gure hizkuntza bizirik dagoela. Horren lekuko dira Vianako **Erentzun** eta Iruñerriko **San Fermin** ikastolak: 2026ko **Nafarroa Oinez** festa handia prestatzen ari dira jada, eta oraingoan, inoiz baino indartsuago datoz.

Oinez berezi eta historikoa.

Nafarroa Oinezaren historian lehen aldiz tamaina eta errealitate erabat desberdineko bi ikastolek hartu dute jaia antolatzeko ardura: Vianako Erentzun Ikastola txiki. baina borrokalariak eta Iruñerriko San Fermin Ikastola handiak. Erentzunek 120 ikasle inguru ditu, eta San Ferminen 1.500. Neurri desberdineko bikotea, bai, baina euskararen aldeko grina partekatzen dutena. **"Bidean bat gara"** aukeratu dute lelotzat, bi eragile desberdin izan arren, helburu komun bat dutelako: euskara maite duten guztien topagunea sortzea.



Logoa

Begiratu aurtengo logoari. Ezaguna egiten al zaizue? Bai, **Irulegiko** Eskua du oinarri. Aspaldiko brontzeko esku hori elkartasunaren ikur bilakatu dute. Eskuko keinutik "E" hizkia sortu dute: euskara, elkartasuna, elkarrekin bidea egiteko gogoia irudikatzeko. Bi esku lotzen direla ere ikus daiteke.

E OINEZ *Bidean* bat gara

Zergatik jarraitu behar da "oinez"?

Baten batek galdetuko du: "*Baina oraindik ere festak eta aldarrikapenak behar al dira?*". Datuetara bagoaz, erantzuna argia da: bai. Nafarroan euskaldun osoen kopurua % 14,1ekoa da gaur egun. Pausoak eman dira 60 urte hauetan, batez ere gazteen artean, baina erabilerak mantsoago egiten du gora. Ikastolak euskara berreskuratzeke haziak izan ziren, eta oraindik ere zonifikazioaren muga administratiboak gainditzeko lanean jarraitzen dute.

Vianako Erentzun Ikastola, adibidez, D eredia eskaintzen duen erreferente bakarra da bere inguruan, komunitatez aldatu gabe, gertuen duen D ereduko ikastetxea 40 kilometrorra dago. Gainera, ikastola da euskal kulturaren eragile aktiboa, **Olentzero** bezalako tradizioetatik hasi eta gure zonaldean ezaguna den **Artisautza Azokaraino**.

Horregatik, 2026ko urriaren 18an **Zizur** eta **Galar** artean ospatuko dugun festak bultzada ekonomikoa baino gehiago, euskararen normalizaziorako "jauzi kualitatibo" bat izan nahi du.

Prestaketak, denda eta Sanferminetako hitzordua

Jai handia iritsi bitartean, badira motorrak berotzeko moduak. Ostegun, ostiral eta larunbatetan *Oinezeko* denda irekita egongo da Vianan. Bertan, aurtengo arropa eta materiala eros daitezke.

Gainera, *Sanferminak* gertu ditugu! Urtero bezala, *Oinez Txokoa* martxan egongo da. Familia giroan egoteko leku paregabea: edari freskoak, bokatak eta kontzertuak egongo dira. Euskaltzaleon urteroko topagune den txoko honetan, dena prest egongo da giro ederraz gozatzeko.

Besterik ez, hitzordua apuntatu eta **urrian Nafarroa Oinez** festan denok elkartuko gara. Gu zuekin batera ere, bidean bat garelako.



zieko.....

Senidetzeak

Eltzieso herrian hainbat senidetze harreman ditugu urteetan zehar garatu diren kultur, gastronomia eta ardoaren inguruko loturak sendotzeko. Gaur egun, Eltziegok harremanak ditu **Idiazabal, Boiro** eta **Cussac-Fort-Médoc** herriekin. Senidetze horien bidez, udalerriek kultur trukeak, bisitak eta jai giroko topaketak antolatzen dituzte urte osoan zehar.

Urte gehien daramana, **Idiazabal** eta Eltziegoren arteko adiskidetasuna da, urte batzuetako bisiten ondoren formalizatu zena 2017an. Orduan, bi herrietako alkateek senidetze dokumentua sinatu zuten, etorkizunean harremanak sendotzen jarraitzeko asmoz. Harreman horren adibideen artean “*Idiazabal Eguna*” (Eltziegoren) eta “*Eltzieso Eguna*” (Idiazabalen) daude. Jai egun horietan gazta postuak, herri-kirolak, dantzak eta herri-bazkariak egin ohi dira.



Boiro herri galziarrarekin, urtero elkartzen dira: urte batean Eltziegoren, eta hurrengoan Boiron. Aurten Eltzieso herriari Boirora joatea tokatzen zaio Santiago egunean. Bidaiaren helburua bi herrien arteko harremanak berreskuratzea eta Boiroko ingurua eta kultura ezagutzea da. 2025eko azaroan, Boiro herria etorri zen Esker Oneko Eguna batera ospatzeko.



Tfiki-ffaka 2026

Cussac-Fort-Médoc herriarekin, berriz, lotura estua dago **Jean Pineauren** figuraren inguruan. XIX. mendean, Cussac herriko enologo horrek Rioja ardo modernoaren garapenean eragin handia izan zuen. Bi herrien arteko senidetzea 2018an sinatu zen ofizialki, eta ordutik hainbat truke egin dira. Besteak beste, mahasti inausketa lehiaketak, bisita instituzionalak eta kultura jarduerak antolatzen dituzte.





Gauza Tipien Handitasuna

Edonori galdetuz gero zein den urtarorik kuttunena, erantzun ezberdin ugari jasoko genuke zalantza izpirik gabe. Negua batzuentzat segurutik: elurra, hotza... Beste batzuek udazkena nahiago kolore xarmagarri horiek ikustearren. Ezin uka, ordea, udaberriaren alde egingo luketela gehienek, izan ere, natura lotan izan ondoren, bat-batean esnatu, eta ingurumari nahiz bazter guztiak berdatu egiten ditu zorioneko udaberriak. Loreak, belarrak, intsektuak, hegaztiak eta animalia guztiak batzen dira udaberriaren banketea. Eta bai, liluragarria da dena; bizitza berria nolabait.

Neu kaletarra nauzue, baina aspaldi erabaki nuen herrira jotzea. Garai batean lanera berehala joatearren, kafe huts azkar bat edan, eta segituan bertara. Egun, ostera, patxadaz hartzen dut gosaria, eta txorien kantuek esnatzen naute. Alde ederra, gero!

Esan behar dizuet negua dela nire urtarorik kuttunena, baina oraingoan udaberriaren liluraz arituko natzaizue ondoko lerroetan, udaberrian izaten den mundu txikiak, hain zuzen.

Zaletasun handia hartu dut aspaldion sakelakoaz mundu txiki hori fotografiatzeko. Txundigarria da zenbat lore, intsektu, txori ikusten den, arretatsu ibiliz gero. Egindako argazki polit batzuk aukeratu ditut, etxeko lorategitik mugitu gabe ateratakoak. Basa lorategia da gurea, hau da, hazten dena bakean uzten dugu, eta zoragarria da zenbat belar eta intsektu mota begizatzen den. Zenbaitek utzikeria edota zikinkeria dela pentsatuko du; guk, berriz, mundu txikia bezain zabala eta anitza antzematen dugu.

Hiazinto Nazarenoa (*muscari neglectum*).
Nazarenoa Aste Santua iritsi aurretik loratzen baita. Zenbait tokitan **Mahats Hiazintoa** ere deitzen diote; izan ere, mahats-mordo baten antza du.

Napoleón armiarma (*synema globosum*).
Armiarma ñimiño honek ez du amaraunik egiten bestelako intsektuak harrapatzeko. Zelatan egoten da, batez ere horiak diren loretan harrapakinei lupua injektatzeko. Argazkian erlea harrapatu berri du. Gorputzean duen orbanak **Bonaparte** enperadorearen tankera hartzen du; hortik izena.



Ttiki-ttaka 2026




Armiarma orkidea (*ophrys incubacea*). Loreak intsektu baten gorputza antzeratzen du horiek erakarri eta lorautsezatzeko. 8 zentimetro har ditzake.



Astigarr negundoa (*acer negundo*). Loretan dagoenean erleak berehala joaten dira nektarra xurgatzera; haientzat oso edari energetikoa da. Oso goiz loratzen da.



Elorri beltza (*prunus spinosa*). Bere fruituekin (basaranak) alkoholdun edaria (patxarana) egiten da.



Arkakaratsa, Astoarrosa, Basarrosa (*rosa canina*). Fruituak oso osasuntsuak dira; belar-dendetan izaten dira. Erdaraz "tapaculos" esaten diete fruituei (escaramujo).



Txikoria belar (*Taraxacum officinale*). Landare honek ikaragarrizko abilezia du haziak zabaltzeko. Belar-dendetan oso ohikoa da.



Erromeroa (*Rosmarinus officinalis*). Sukaldaritzan zein medikuntzan dezente erabilia. Argazkian erlastarra (*bombus*) lanean; erleak baino efizienteagoak omen dira polinizatzeko orduan. Nekatzen direnean, loreetan geratzen dira lo seko. Bospasei orduko loa (atsedena) izaten dute.



Jasmin horia (*jasminum officinale*). 200 bat jasmin mota omen daude. 15 metro har ditzake; landare igokaria da.

Gereziondoa (*prunus avium*). Ugaria Arabako Errioxako bazterretan. Japongo kulturaren berebiziko garrantzia du: edertasun efimeroa, hauskortasuna eta bizitzaren iragankortasuna adierazten du. Japonieraz **Sakura** deitzen diote.



Elorri zuria (*crataegus monogyna*). Ikerketa ugari egin dira elorri zuriaren kontura. Badirudi tentsio arteriala hobetzen duela; dena den, belar-ura hartzekotan, osagileari galdetzea ezinbestekoa da, batez ere bestelako botikak hartzen badira. Loratzen denean, ikuskizun paregabea da; usaina bera ere ikaragarri gozoa. Fruituak txorrientzako elikagai garrantzitsuak dira, udazkena edota negua denean, batik bat. Gizakiak berak ere jan ditzake fruituak lasai asko. Literaturan eta herri-jakintzan askotan agertzen da.



Basageraniaoa (*Geranium robertianum*)



Urrebotoi. (*Ranunculus repens*). Toxikoa da gizakiarentzat nahiz animalientzat. Ukituz gero, urtikaria eta dermatitisa eragin ditzake.

Abrikotondo (*prunus armeniaca*). Irudian lorea.



(*Almendrondo loretan* 1890eko otsaila). **Vincent van Gogh** pintoreak Vincent Willem seme besoetakoari egin eta oparitu zion koadroa; bizitza berriari egindako koadroa.

Almendrondo (*prunus dulcis*). Hebreeraz “**esnatzen dena**” esan nahi du. Lehena da loratzen, urtarrila eta otsaila bitartean; neguaren amaiera eta udaberriaren hasiera iragartzen du. Askotan izotzak eraso egiten dio loretsu dagoenean. Elurra dagoela ere, lorez beterik agertzen da maiz. Espezie monoikoa da, hau da, lore emeak nahiz arrak ditu, baina parean beste almendrondo baten beharra du polinizatzeko; erleek, jakina, berebiziko garrantzia dute horretan. Antzina fruituak toxikoak ziren (almendra mingotsak), zianuroa zeukaten-eta. Denboraren poderioz, gizakiaren hautespen-naturalak almendra goxoak lortzea ahalbideratu zuen. Arabako Errioxan ugariak dira, eta ikuskizun ikaragarri ederra izaten da almendrondo guztiak batera esnatzen direnean; ileurdin gizaki saldoa dirudite.



2025eko ekainean, Ttiki-ttakan **Auzoko Elkarrizketak** egitasmoa antolatzeko edo bideratzeko proposamena jaso genuen **Taupatik** (Euskara Elkarteen Topagunea). Proiektuaren helburua, betiere euskara erdigunean kokatuta, herriko hizkuntza eta kultura aniztasuna bistaratzea zen. Izan ere, gure herrietako biztanleria asko aldatu da 30 urte hauetan, eta Tauparen eta Ttiki-ttakaren xedea aldatu ez bada ere — euskararen normalizazioa —, argi dago egungo hizkuntza aniztasuna kontuan izan beharreko eragilea dugula, jendartearen aniztasuna handia baita. Horrela bada, Auzoko Elkarrizketak proposatzen zuen euskara gertutik bizi dutenak eta euskaratik urrun daudenak elkartu eta elkarrekin elkarrizketan aritzea.

Ttiki-ttakan Oionen egitea ikusi genuen aproposena, baina zenbait zalantza izan genuen, herrian bai baita Bizikidetza-mahaia, eta ez genuen inola ere besteren lana ez zapaldu eta ez nahastu nahi. Hala ere, bizikidetza lantzeko ere ariketa baliagarria izan arren, euskara erdigunean jartzeak Ttiki-ttakaren bidearekin bat egiten zuen eta, Bizikidetza-mahaikoekin kontsultatu ondoren, aurrera egitea erabaki genuen, haiek ere begi onez ikusi baitzuten ekimena.

Bazterra aretoa eta azaroaren 28a aukeratu genituen elkarrizketa-saioa aurrera eramateko, eta lanari ekin genion. Taupa arduratuko zen eguneko dinamizazioaz eta metodologiaz, eta Ttiki-ttaka alde aurreko lanaz, zabaltze-lanaz batez ere. Hala bada, Udalarekin, hezkuntza komunitatearekin (eskola zein ikastola), euskaltegiarekin, kultura aniztasunean lanean dihardutenekin (**EPA, Jolasean Bitartean...**) bilerak egin genituen proiektua azaldu eta bideratzeko. Eguneko parte-hartzeari dagokionez, 30 laguneko helburua jarri genuen, baita muga ere, hortik gora zaila izango baitzen dinamizatzea eta guztien esku-hartzea bermatzea.

Eta iritsi zen eguna. 29 heldu bildu ginen: euskararen normalizazio prozesuan interesa dugunak, batetik, eta bestetik, Oiongo jendartera aniztasuna eta aberastasuna ekarri duten horiek. Baina egun horretan talde bakarra ginen, talde anitza jatorriari erreparatuta: **Euskal Herria, Espainia, Austria, Maroco, Brasil...**

Hasteko, elkar ezagutu eta berotzeko aretoaren zorian jarritako munduko mapa baten gainean mugimenduan ibilarazi gintuzten, galdera hauei erantzunez: *non jaio zinen? Non bizi*

Tfiki-ffaka 2026

izan zara? Non nahiko zenuke bizi? Non bizi zara orain? Polita izan zen zein erraz mugitu ginen munduan zehar ikustea. Hirugarren galdera zaila egin zitzaion zenbaiti; izan ere, jatorria aspaldi uztearen ondorioz, zail egiten zitzaion orain non bizi nahiko luketen jakitea, urteen poderioz loturak sortuak dituztelako hemen. Azken galderak denok Oionen biltzen gintuen.

Hurrengo dinamika norbanakoen aurkezpenak izan ziren. Horretarako, elkar ezagutzen ez zuten bikoteak osatu, eta nor bere hizkuntzan bere burua aurkeztu zion bikotekideari. Noski, elkar ulertzea garrantzitsua da, eta gaztelaniara jo beharra izan zen bikote guztietan. Elkar hurbilagotik ezagutzeko balio izateaz gain, zenbat hizkuntzatan komunikatzen ginen han bildutakoak agerian geratu zen: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelera, arabiera, alemaniera, portugesa eta amazigera (berbere).

Barre dezente egin genuen aurkezpenekin, eta nabari zen giro polita bizi zela aretoan. Jarraian, datuak izan genituen: zenbat euskaldun daude Oionen, zenbat erdaldun, zenbat herrialdetakoak bizi gara... Eta beste dinamika bat, jolas bat... arratsaldea erraz zihoan aurrera.



Amaiera-ordua hurbiltzen ari zen. Etorkizunari tokia egin behar zitzaion elkarrizketa-saioan. *Amildegia* izeneko jokoaren bidez, Oion orain eta etorkizunean irudikatu genuen, amildegia alde banatan kokatuta oraina eta etorkizuna. Taldetxoetan elkartuta, oraingo Oionetik etorkizunerako Oionerako zubi horretan egin beharrekoak proposatu genituen. Aitortu behar da ez dela erraza erronka, baina kontutxoak atera ziren, eta esan dezakegu nolako Oion nahi dugun horretan jasotakoak pozgarriak direla; honako hauek, esaterako: kulturen arteko ekintzak sustatu eta bultzatzen dituen Oion; hezkuntza-baliabide gehiago dituen Oion, etorri berri direnek euskara ikasi ahal izan dezaten; euskara ikastea doakoa; euskara harrera hizkuntza gisa erabiltzea; herrikoek kanpotik etorritakoen kulturen interesa erakustea...

Aipatu behar da, dena den, etorkizuneko Oion eder horretan euskara asko aipatu arren, auzo-elkarrizketaren mamia gure hizkuntzak baino gehiago hartu zuela bizikidetzak, eta, jakina, ulertzekoa da, elkar errespetatzea ezinbestekoa baita edozertan aurrera egiteko.

Horixe da, beraz, hurrengoa, hots, aurrera nola jarraitu aztertzea: zer egin hemendik aurrera? Bide horretan dugu lanean Bizikidetzeta-mahaia, eta aldizkari hau argitaratutakoan amaitua izango bada ere, idazten ari garen honetan oraindik gertatu gabeko ekimen bati buruz hitz egin behar dugu. Maiatzaren 21ean, Oionen, *Kultur Aniztasunaren Eguna* ospatu(ko) da. Egun horretan, Oiongo jendarteak elkar ezagutu eta komunikazioa aberasteko helburuarekin,

Ttiki-ttaka 2026



nork bere kulturaren ohitura, usadio, hizkuntza... partekatuko ditu gainerakoekin, izan Historia, izan janaria, izan arropa, izan istorioak, izan esapide bereziak, izan musika...

Testuari amaiera emateko, auzo-elkarrizketa egunean hitz gutxitan baloratzeko eskatu eta han zirenek jarritakoak ekarri ditugu hona: Ezinbestekoa / Aukera polita / Shukran / Eutsi goiari! / Más encuentros como los de hoy / Elkarrekin aurrera / Tanmirt (plazer bat) / Elkartasuna / Toqeit tanmint (eskerrik asko) / Es un gusto poder tener un espacio de encuentro con vecinos y vecinas / Giro ona / Descubrimiento / Bijair (oso ondo) / Un ambiente amable y abierto. Eskerrik asko!

Eta honako hau izan da **Tauparen** balorazio-laburpena: “Jendearen parte-hartzeko, elkar banatzeko, entzuteko eta emateko prestutasuna oso azpimarratzekoa izan zen, eta horren erakusgarri izan ziren azken balorazioak, bai, baina askoz gehiago bertan sortutako giro atsegina. Irribarreak, erosotasuna, konplizitatea eta elkar ulertu eta laguntzeko grina arnastu ziren, eta horrek Oiongo jendartearen balioari buruz asko esaten du. Oso hunkigarria eta aberasgarria izan zen bertan bizitakoa eta gure balorazioa hamarrekoa baino gehiago, hamaikakoa izan zen. **Gora Oion eta bere jendarte anitza!**”



www.sanbizenteikastola.eus



Euskara Sexista? Erabilera, Gakoa



Aspaldi hasi ziren hizkuntzek berez duten sexismoa ikertzen, eta neurtu ere neurtu izan dute, auskalo zein aldagai kontuan hartu duten, baina horrela da. Ikerketa horietako batean euskara ere aztertu zuten: 1977ko **Álvaro García Meseguerren** “*Lenguaje y discriminación sexista*” ikerketan, hain zuzen ere. Eta datu bitxi batzuk ondorioztatu ziren aipatutako lanean: gaztelaniak % 80ko zama sexista dauka, frantsesak, berriz, % 40. Harrigarria hainbesteko aldea izatea, biak hizkuntza erromantzeak izanik. Eta euskarak? Ikerketa horrek dioenez, euskararen zama sexista % 5koa da. Hala ere, hizkuntzak, berez, sexistak dira, ala erabilera da sexista? Datozen lerroetan ikusiko dugunez, argi dago erabaki asko hiztunon esku daudela.

Euskarak genero gramatikalik ez dauka, baina hizkuntza eginak molde batzuk eman dizkigu karga sexista dutenak. Esate baterako, *giz-* erroaren erabilera generikoa hitz askotan: *gizarte*, *gizaki*... Argi dago gizona jartzen dutela erdigunean. Hori dela eta, *Berrian* esaterako, *jendarte* hobesten hasi ziren *gizarte*-ren ordez 2005etik; gainera, *pertsona* erabili daiteke *gizakiren* ordez. Dena den, molde okerragoak daude, hala nola, *gizona* hitz elkartuetan edota zenbait esamoldetan erabiltzea: *enpresa-gizon*, *plazagizon*, *gizon portatu*... Horrelakoak adierazteko hobetsi behar ditugun formak ditugu: *plazagizon* eta *plazandre*, *enpresa-jendea* edo *enpresari*, *behar bezala portatu*... *Anaia* hitzaren eratorriekin ere antzekoa gertatzen da; hobe da *senidetasun* erabiltzea *anaitasun* baino.

Hori alde batera utzita, gaztelania edota frantsesaren eraginez, forma ez egokiak iritsi zaizkigu euskarara. Maskulino orokortua erabiltzen dutenez, euskaraz *nire aitak*, *nire semeak*, *maisuk*... bezalakoak entzuten ditugu. Euskaraz baditugu forma propioak maskulinoa orokortzen ez dutenak: *gurasoak*, *seme-alabak*, *maisu-maistra/irakasle*... Horrekin lotuta, Gasteizen adibidez *Errege katoliko*en *kaleari* izena aldatu diote eta *Errege-erregina katoliko*en *kalea* da orain. Horrelako hitz elkarketetan, gainera, **Begoña Muruaga** filologoak silaba gutxien duena lehenengo lekuan jartzea komeni dela adierazi zuen: *seme-alabak*, *neska-mutilak*..., ordenerako horrelako irizpide bat izateak ere garrantzia baitu.

Erderen eraginez ez da aipatutakoa bakarrik gertatzen. Gaztelanian edota frantsesean, generoari dagokionean, forma bidezkoagoak edo egokiagoak bilatzen dituzte, eta horrek alferrikako kalkoak eragin ditu. Alde batetik, emakumezkoak aipatzeko beharra euskarara ere iritsi eta *-sa* amaieradun izenak erabiltzeko joera zabaldu zen duela urte batzuk. Zubereran izen femeninoak egiteko erabiltzen da *-sa* atzikia; hori hartu eta beste hitz berri eta ezegoki batzuk sortzeko erabili zen, *alkatesa* edota *aktorea* esaterako. Horrela eginez gero, nahiz eta asmoa ona izan, euskarazko alkate hitzak karga maskulinoa hartuko du, berez neutroa bada ere, eta ondorioak okerragoak dira. Beraz, generoa markatu nahi badugu, *alkatesa* esan baino *emakumezko alkatea* esatea komeni da, berdin aktore, langile eta gisa horretako hitzekin. Euskaltzaindiak, hala ere, horrelako zenbait onartu ditu: *jainkosa*, *abadesa*, *dukesa*...

Beste alde batetik, gaztelaniaz generoarekin bidezkoagoa den beste estrategietako bat izen abstraktoagoak erabiltzea da, hau da, *los alumnos* bakarrik esan beharrean edo *los alumnos* y *las alumnas*

Tfiki-ffaka 2026

bezalako forma hain luzea ez erabiltzeko, *el alumnado* erabiltzen da. Horrek, euskaraz itzulpenak egitean, hitz lausoagoak erabiltzea ekartzen du, eta *ikasletoa* erabiltzeko joera zabaldu da, baina euskaraz ez da beharrezkoa, izen multzokariak baititugu, genero kargarik gabekoak: *ikasleak*, eta hizkuntzari ez diote mesederik egiten forma abstrakto horiek. Beste adibide bat luzapenak dira: generoa (*los becarios*) ekiditeko luzapenak egiten dira (*las personas que han recibido la beca*), baina euskaraz ez dugu esango *beka jaso duten pertsonak*, badugu-eta hitz zehatza *bekaduna*, edo ez dugu esango *parte hartuko duten pertsonak*, *parte hartzaileak* hitza izanik.



Hala ere, zenbaitetan luzapenak komenigarriak dira. Izan ere, sexismoa dago bai gauzak esatean zein ez esatean, estereotipo batzuk zabaldua baitaude gizartean: adibidez, (horrela izan beharko ez balitz ere) *futbolariak* entzutean gizonetzkoak etortzen zaizkigu burura. Beraz, ez dago gaizki honela izendatzea: *gizonetzko futbolariak* eta *emakume futbolariak*... Den den, hori egitekotan, bi norabideetan egin behar da, hots, ezin dugu *Athletic* erabili gizonetzkoen taldeari erreferentzia egiteko eta *Athleticen emakumezkoen taldea* neskei erreferentzia egiteko. Luzapenak bientzat edo batentzat ere ez.

Hori dena ikusita, hizkuntza sexista edo ez sexistei baino, komunikazio sexistari buruz hitz egitea komeni da. Garrantzitsua da aipatutakoak kontuan hartzea; izan ere, hizkuntzak eragin handia dauka munduaren ikuskeran, esan ohi denez: *izena duenak izana du*. Hau ez da bakarrik gertatzen generoarekin, identitate eta familia aniztasuna kontuan hartu nahi badugu, hobetsi behar dugu *Goazen kuadrilla!*, *Goazen neska-mutilak!* baino edo *senar-emazte* ordez, *bikote*. Arraza eta kultura aniztasuna ere kontuan hartu beharrekoa da: asko dira *ijito* hitza iraintzeko erabiltzen dutenak edo *migratzaile* izendatzeko, adjetibo bezala erabili beharrean. Aniztasun funtzionala eta intelektuala duten pertsonekin, *elbarri* edo *baliaezintasuna* hitzen ganean, hobetsi behar ditugu *desgaitasuna duten pertsonak*, *ezinduak* edo zehatz aipatu *desgaitasuna*; izan ere, ez da gauza bera eskizofrenia izatea edo gurpil-aulkian mugitzea. Bukatzeko, adin-aniztasuna dugu: ez da komeni *Gure zaharrak* bezalako esamolde paternalista edo posesiboa erabiltzea. *Zaharra* forma ondo dago; orokortzailea da gainera, eta *agureen egoitza* esan beharrean *zaharren egoitza* esatea ahalbidetzen digu.

Gauza asko aipatu gabe geratu dira: hitanoa, genero marka izateagatik, sexista al da? Ez, esan bezala, erabilera egokia da gakoa. Gauza bera gertatzen da esaera zaharrek; oso aberatsa da euskara horretan; baietz egokia aurkitu! Hizkuntzak bidea aukeratzeko parada ematen digu. Hiztunok kontzientzia hartu behar dugu. Hizkuntza tresna baino ez da, mundua interpretatzeko eta eraldatzeko.

**euskara
gurea, denona!**



Gure lurraldea mehatxatzen duen mamu bat datorkigu gainera, eta ez bisitan, baizik eta gelditzeko asmoarekin...

Eusko Jurlaritzak, arko parlamentarioa osatzen duten alderdi ororen babesarekin, sustatutako Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialak (LPS) Euskal Autonomia Erkidegoan parke eoliko eta fotovoltaiko handiak antolatzeko irizpideak ezartzea du helburu. Proiektu hauek eraikitzeko irizpideak zehaztu bai, baina inondik ez da ageri estrategia hau antolatzen duen planik ezta berauen helburuak zehazten dituenik ere. Planaren bidez, erakundeek energia berriztagarrien garapena bizkortu nahi dute, trantsizio energetikoa sustatzeko eta klima aldaketaren aurkako neurriak indartzeko, edo hori saltzen dute behintzat... Administrazioaren arabera, energia garbien aldeko apustua ezinbestekoa da etorkizun jasangarriago bat bermatzeko eta kanpoko energiarekiko mendekotasuna murrizteko, baina, aldi berean, energia kantitate izugarriak behar dituzten datuak gordetzeko planta erraldoiak eraikitzeko planak aurkezten dituzte. Hori al da gizarte bezala energiarekiko mendekotasuna murrizteko saltzen diguten estrategia?...



Hala ere, “LPS honi EZ!” plataformak azaltzen duen bezala, plan honek ez du benetako trantsizio ekologiko eta sozial justurik bermatzen. Eusko jurlaritzaren jardunbideak argi erakusten du proiektu handiak lehenesten direla oligopolio energetikoen irabazi ekonomikoen mesedetan, eta horrek mendialde, baso eta landa eremu askoren industrializazioa ekar dezake, horrek suposatzen duen suntsiketa ekologikoarekin. Gainera, energia berriztagarrien izenean enpresa handien interes ekonomikoak lehenesten direla, tokian tokiko komunitateen eta ingurumenaren gainetik, erabakitze

eskubidea urratuz. Plan hau aurrera aterako balitz, tokian tokiko kolektiboek defentsarako duten margena erabat ezabatuko luke izan ere, burokrasia guztia saltatu eta zuzenean eraikitzeko ateak zabaltzen ditu.

Beste lurraldeetan izan diren esperientziek erakutsi dute parke eoliko eta eguzki instalazio handiek biodibertsitatean kalte larriak eragin ditzaketela, fauna eta paisaia naturala arriskuan jarriz. Horrez gain, nekazaritza lurren okupazioan, mendien artifizializazioan eta herri txikien bizimoduan izan dezaketen eragina ere azpimarratu dituzte, despopulatzea, kasurako. Gainera, “LPS honi EZ!” plataformaren hitzetan, planak ez ditu behar bezala aztertu alternatiba jasangarriagoak, hala nola autokontsumoa, tokiko energia komunitateak edota kontsumoaren murrizketa.

Beste kritika nagusietako bat parte-hartze prozesuari lotuta dago. “LPS honi EZ!” mugimenduak salatu du herritarrek eta elkarteek aurkeztutako hamaika alegazio ez direla behar bezala kontuan hartu, eta prozesua gardentasun faltaz egin dela. Horregatik, mobilizazio sozialekin jarraitzea ezinbestekoa da, eta plana auzitegietan salatzeko aukera aztertzen ari direla iragarri dute.

Bukatzeko, plan honek Arabako Errioxan duen inpaktuari erreparatzea ezinbestekoa dugu. Izan ere, Arabako Errioxa makroproiektu hauek aurrera ateratzeko eskualde egokitzat proposatzen du. Labrazakoa honen guztiaren adibidea da, eta etorkizunean inposatuko dizkiguten proiektuei ateak zabaltzen dizkiona. Horregatik, eta lehen aipatutako guztiarengatik inoiz baino adiago ibili behar gara benetan nahi badugu gure eskualdearen nortasuna bizirik jarraitzea, bestela konturatuko orduko, gure paisaia osatzen duen mahasti itsasoak fotovoltaikoengatik eta eolikoengatik ordezkaturik izango da.



JAVIER MARTINEZ ELVIRA

Jaio: Lizarran 1980ko azaroaren 29an
Bizi: Mendabia
Ikasi: "Baliabide Natural eta Paisajistikoen
Kudeaketa eta Antolamendua" Murgia (Araba)
Lanbidea: Nekazaria



Mendabian, euskaldun gutxi zegoen garaian eta euskara zenbaitek deabruaren hizkuntzatat zeukaten garaian hasi zinen euskara ikasten. Zer oroitzapen dituzu garai hartaz? Nola gogoratzen duzu garai hura?

Euskara ikasten hasi nintzenean 16-17 urte izango nituen. Orduan ez nintzen jabetzen horrelako jarrera ezkorrez. Baina euskaltegian sartu bezain pronto, antzeman ahal izan nuen herriko pertsona batzuek ez gintuztela begi onez ikusten.

Gogorra egiten zitzaizun egunero arratsaldeko 20:00etatik 22:00etara klasera joatea?

Batere ez, kontrakoa. Gogoan dut egun bat, ikasturtea amaitzear zegoela, irakasleak esan zidan ea konturatu nintzen egun bat ere ez nuela huts egin klasean. Eta ez, ez nintzen jabetzen horretaz, oso gustura nindoan klasera, ilusioz beteta nengoen euskara ikastearekin,

eta, gainera, ikaskide ezin hobeak ezagutu nituen...

Urteren batean euskara-eskolak ematen zenituzten ordu berean eta lokal berean "sevillana" dantza-klaseak ere izaten ziren. Oztopo handia izan zen? Zer moduz moldatzen zineten?

Bai, oso bitxia zen egoera hura. Kontatzen dudanean ez dute sinesten, baina hala zen. Oztopo handia ez zen izan, umorez eta pazientziarekin hartzen genuelako, baina tira, aitortu behar da euskara ikasteko ez zela erraztasun bat.

Taldeak euskara ikasteko prozesuan bidean geratzen hasi ziren, eta Oionen bukatu zenuen euskalduntzea. Esfortzu handia zen?

Lortutakoak esfortzua gainditu zuen?

Oionera joaten hasi ginenean nik ez neukan autorik, horregatik, agian niretzat ez zen hain neketsua. Autoan igo eta ordu erdian euskaltegian nengoen; agian txarrena zen etxera itzultzeko ordua, oso berandu iristen baikinen. Baina pozik nindoan, lehenengo aldiz ezagutu nuen euskaltegi bat, hor giro guztiz euskalduna zen, zure mailako eta maila altuagoko pertsonekin harremanak egiten dituzu, eta horrek asko laguntzen du zure ikas-prozesuan, baita zure bizitza pertsonala zabaltzen ere. Lortutakoak guztiz gainditu zuen esfortzua. Orduetik gaur artea nire erlazioa euskaltegiarekin oso estua izan da.

Euskara ikasten hastearekin ia batera hasi zineten Mendabiako Euskal Kultur Astea antolatzen. Zer lortu nahi zenuten aste horrekin?

Oso inportantea izan da Mendabiako Euskal Kultur Astea guretzat. Euskara klaseetatik kaleetara atera nahi genuen Mendabian presentzia izan zezan, eta horrek bai sortu zuela iskanbila euskara deabruaren hizkuntzatat hartzen zutenen artean.

Baduzu Kultur Astearen egindako ekintzen artean bereziki gogoratzen duzun baten bat?

Uf, asko izan dira; zaila da batekin geratzea, baina oso atseginez gogoratzen ditut Legardako merenderoan egiten genituen bazkari herrikoiak eta bazkalosteko kantaldiak.

Aspaldi hasi zineten Mendabiako udako festetan txosna eta festa alternatiboak antolatzen ere. Badakit hasieran ez zela erraza izan. Gogoan duzu garai hartako zailtasunarekin lotutako pasadizoren bat?

Duela urte para pare bat bete genituen 25 urte lehenengo txosna antolatu genuenetik. Alde batetik betiko aurreiritziak ziren, taberna batzuk ere haserre ziren, eta udalak herritik urrun bidali gintuen txosna jartzera. Gogoratzen dut lehenengo urtean ez zigutela baimen ofizialik eman jaiak baino egun batzuk lehenago arte. Iberdrolak bete ezin genituen baldintzak eskatzen zizkigun argindarra jartzeko, baina auzokide batekin moldatu ginen. Hala ere, dena prest genuenean eta egun bat falta zela txupinazorako, auzokide horrek presio batzuk jaso zituen, eta erabaki zuen argindarrak ez ematea. Kristoren oztopoa izan zen hura, eta lehenengo egunean sorgailu elektriko bat erabili behar izan genuen zorionez, nahiz eta modu ez oso legalean izan. Ezagutzen genuen elektrikari batek konektatu gintuen sare elektrikora, eta horrela eman genituen jaiegun guztiak. Jaiak bukatu eta gero Iberdrolakoak etorri ziren... baina tira, jada berandu zen.

Eta gogoan duzu txosnan bizitako pasadizo pozgarririk, bitxirik...?


Asko bai, kar-kar! Diruz larri ibili gara beti, eta garai hartan are gehiago; ez genuen musika taldeak kontratatzeke ere. Beraz, guk geuk egiten genituen ikuskizunak...

Euskara Elkarteak ere aspaldi sortu zenuten. Zer helbururekin?

Mendabiako euskaldun eta euskaltzale guztiak batu nahi genituen elkarte batean. Horrela sostengu sendoagoa eman ahal genion Euskaltegiak antolatutakoari, eta, era berean, ekintza berriak sortu; adibidez, aipatutako txosna, Olentzero eta Mari Domingiri ongi etorria, beste herrietako euskara mugimenduekin harremanak estutu edota Euskal Herri mailan ematen diren beste ekintzetan parte hartu. Aurten, esate baterako, ospatu dugu estreinakoz herri inauteria, eta oso harrera ona izan du.

Duela urte batzuetatik hona Mendaberria Euskara Elkarteak lokal propioa ere badu. Nola funtzionatzen du? Zer egiten duzue?

Izugarrizko tresna da gure egunerokoan. Bazkideon kuoten bitartez ordaintzen dugu alokairua, eta bertan euskara eskolak ematen ditugu, bilerak, ez bakarrik geureak, herriko beste elkarte batzuek ere eskatzen digute lokala beren batzarrak egiteko. Kontzertuak, hitzaldiak, zinema... gauza piloa egiten ditugu bertan.



Zure euskararekiko harremana ez da amaitu zeure ikaste-prozesuarekin, ezta Mendaberria Elkarteak partaide eta Ttiki-ttaka elkarteak bazkide izatearekin ere, urteak baitaramatzazu Mendabian bertan helduei euskara-eskolak ematen. Zenbat urte daramazu eskola-ematen? Zer moduz moldatzen zara?

Dagoeneko ez dakit zenbat urte daramatzadan... Gogoan dut lehenengo urtea: ikasle kopuru txikia genuen Mendabian zerotik hasteko, eta Oiondik ezin zen irakaslea etorri. Askotan gertatzen zitzaigun hori, eta pena handiz taldea ez zen ateratzen. Euskaltegitik proposatu zidaten irakaslea izatearena urte hartan; baietz esan nien, eta ordutik hona nik uste dut urtero atera dela taldea. Ni oso gustura nago irakasten eta asko gustatzen zait; gainera, nire ikaste-prozesuan ikasi eta bizi izandakoak izugarri laguntzen dit eskolak emateko orduan. Uste dut ongi moldatzen naizela, baina hori nik baino gehiago ikasleek esan beharko lukete.

Duela urte batzuk, zenbait herritarrek bertako Udalean sartu nahian alderdi politikoa sortu zenuten. Zer dela-eta? Zer aldarrikapen nagusi dituzue?

Ttiki-ttaka 2026

Ezkerra nahiko desitxuratuta eta zaharturik ikusten genuen; adibidez, euskararen inguruko kontuetan ez zen ia sartzen. Odol berriaren beharra sumatzen genuen, eta *Mendabiak Erabaki-Mendavia Decide* sortu genuen.

Aurten Mendabiako alkate izendatuko zaituzte? Nola izan da prozesu hori?

Hauteskundeetan bi zinegotzi lortu genituen, eta gure esku zegoen nork hartuko zuen alkatetza. Orain arteko alkateak luze darama karguan, eta higadura agerikoa da. Beraz, akordio batera iritsi ginen, eta azken urtean guk hartuko dugu lekukoa.

Loa kentzen dizu alkate izango zarela jakiteak? Lasai daramazu kargu berri hori hartzea?

Gezurra esango nuke ezetz esanez gero, herria zain eta adi-adi dago, eta horrek presio pixka bat eragiten dizu, baina tira, moldatuko gara: gauza piloa dago egiteko.

Alkatetza lortutakoan herrian aldaketa bereziren bat bultzatuko duzue? Zer helburu dituzue?

Aldaketa bera jada puntu garrantzitsua da. Urte batean ezin da gauza handirik egin, baina bideratu daitezke hainbat lan esparru. Herriko

instalazioetan berrikuntzak, udaleko lan-zerbitzuak berri edota herriaren parte hartzea bultzatu.

Euskarari dagokionez, zerbait aldatzen saiatuko zarete alkate zarenean?

Jakina. Pauso txikiak izango dira ziur aski askorentzat, baina udalean dugun indar banaketarekin ezin dugu askoz gehiago egin. Momentuz handitu dugu dirulaguntza euskararen aldeko ekintzetarako, eta asmoa dut euskara ikasi nahi dutenentzat dirulaguntzak indarrean jartzea. Beste aldetik, Udal zigilua elebidun jarri dugu dagoeneko, eta hemendik gutxira herriko zerbitzuetako seinaleztapena ere elebidun jarriko dugu.

Zer etorkizun ikusten diozu euskarari Mendabian?

Ez dut sumatzen hastapenetako bezainbesteko aurreiritzirik, eta gazteek nahiko onartuta daukate euskara. Hala ere, euskararekiko sentsibilitate handiagoaren falta sentitzen dut. Euskara ahul dago zonalde honetan, eta ia konturatu gabe daukaguna oso erraz galdu ahal dugu, lanean jarraitu ezean. Euskara borrokatu behar dugu ken diezaguten ez badugu nahi. Horixe da geure etorkizuna.




denborapasak

hizki-zopa





E	K	A	I	R	U	B	E	O
S	U	A	O	D	A	A	I	L
H	A	T	Z	R	R	H	G	S
I	A	B	A	E	C	E	D	O
S	E	T	B	C	T	U	Z	N
O	Z	P	O	S	T	A	R	I
E	B	N	R	L	I	O	R	K
J	I	M	A	N	I	K	Z	I
P	A	T	A	L	I	P	O	Z

Aurki itzazu irudi hauei dagozkien hitzak.
Ondo gogoan hartu norabide guztietan
aurki daitezkeela.



hieroglifoak



poema presoa



Zatika emandako erantzunak osatu ahala, eraman itzazu letra zenbakidunak beheko taulara –adibidean bezalaxe– eta Paskual Iturriagaren alegi baten zatia aurkituko duzu.

Arroka	1	A	2	3	4	A
Jipoitu	E	5	6	R	7	U
Belarri-luze txikia	U	N	T	8	9	A
Harrera	A	10	11	12	13	A
Zauri gaiztotuari dario	Z	14	R	15	E	16
Familiako	A	17	18	I	D	E
Urlia eta berendiaren laguna	S	A	19	20	21	22
Toreroaren etsaia	23	E	Z	24	25	A
Basa-behi	B	E	26	I	27	28
Zahagi txikia	Z	29	30	A	T	31
Eskoba hegalaria jabe	S	O	32	G	33	N
Zikoitza, esku-etsia	Z	E ³⁴	K ³⁵	E ³⁶	N	A
Toki batetik bestera aldatu	M	U	37	38	39	U
Ehun urtekoa	M	40	41	42	E	A
Mahats-zuku irakin gabea	M	43	Z	44	I	O
Salmentako partaide	B	45	Z	E	R	46
Hondakin	H	O	47	D	48	R
Aintzira txikia	U	R	49	A	50	L
Adar-gai	A	51	A	R	K	52
Diru-etxea	B	A	N	53	54	55

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29			
30	31	32	33	E ³⁴	K ³⁵	E ³⁶	37	38	39	40	41	42	43	44	45
46	47	48	49	50	51	52	53	54	55						

non gogoa, han zangoa

EUSKAL KULTUR ASTEBURUA

LANTZIEGON MAIATZAK 22

1:00-10:30 ESKOLAN
1:30etan KALEJIRA
1:30-13:00 JOLASAK ETA
JUN KONTALARIA
1:00etan BAZKARIA
1:00 Dja ETA TAILERRAK
1:30 AGURRA

19:30 eta
TRIKI
BERTSC
KANTU
POTEOA



Tfiki-tfaka 2026



Tfiki-tfaka 2026



t tiki
taka



euskaldunon elkarteak

*Bazkide izan nahi baduzu, ondoko fitxa bete ezazu eta bidali gure helbidera. Kuotari dagokionez, **20 euro** dira urtean eta gazteentzat borondatea. Honen truke bidaliko dizugu aldizkaria, informazioa eta ekintza eta bileren berri.*

Egin zaitez bazkide!

Abizenak: _____ Izena: _____

Jaioteguna: _____ Helbidea: _____

Herria: _____ Pta. Kodea: _____ Tfnoa: _____

E-posta: _____

IBAN eta Kontu korrontea: _____